

Enpresaren Deskribapena

WAMU Adriana, Mireia, Weiba eta Udane mediazio komunikatiboko ikasleek sortutako enpresa da, komunikazio zailtasunak dituzten pertsonen oztipoak gainditzen laguntzea helburu duena. Fundatzaile bakoitza erabiltzaile talde jakin batean espezializatuta dago, zerbitzuak eta baliabideak haien beharretara egokitzeko, komunikazio eraginkor eta pertsonalizatua sustatuz hainbat gizarte, hezkuntza eta lan testuingurutan.



FUNDATZAILEAK eta ESPEZIALIZAZIOAK

WEIBA: Autismoaren Espektroaren Nahasmendua, komunikazio bisuala eta integrazio sozialerako laguntza.

ADRIANA: Entzumen Arazoak, zeinu hizkuntza, irisgarritasun-aholkularitza eta lan-inguruneetan integrazioa.

MIREIA: Hizkuntza Nahasmendu Zehatza, hezkuntza eta gizarte testuinguruetarako baliabide eta estrategiak.

UDANE: Gor-itsutasuna, gida-laguntza zerbitzuak eta komunikazio taktileko teknologiak.

MISIOA eta IKUSPEGIA

-Misioa: Komunikazioan zailtasunak dituzten pertsonen laguntza espezializatua eskainiz, haien inklusioa eta parte-hartze osoa sustatzea.

-Ikuspegia: WAMU erreferente bihurtzea irisgarritasunean eta mediazio komunikatiboan, zerbitzu pertsonalizatu eta berritzaileekin.

HELBURUAK

- **Epe laburrean:** Zerbitzu pilotuak eskaintzea 5 erakunde edo enpresetan. Horrela, gure zerbitzuen eraginkortasuna eta kalitatea probatu ahal izango dugu, bezeroen beharrak eta esperientziak jasoz, eta etorkizunean zerbitzuak egokitu eta hobetzeko aukera izango dugu. Pilotuen bidez, gure espezializazioan fidagarritasuna lortuko dugu eta merkatuan onarpen sendoa izango dugu.
- **Epe luzean:** Mediazio komunikatiboan erreferente izatea.

KONPROMISOAK

Komunikazioa oinarrizko eskubidea dela ulertuta, WAMUK komunikazio oztopoak ezabatu eta gizarte bidezko eta irisgarria sustatzen du. Gure helburua da gizartean barne hartzea eta inklusioa bermatzea, bai gizarte eta lan inguruneetan, bai hezkuntza testuinguruetan. Horrela, pertsona guztiek, komunikazioaren oztopoak gaindituta, parte-hartze aktiboa izan dezakete. Gure konpromisoa da zerbitzu espezializatuak eta baliabide berritzaileak eskaintzea, betiere pertsonen beharrei eta eskubideei erantzunez.